

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

175

1/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 8koa, Bilboko «Ekologistak Martxan Bizkaia» Elkarte onura publikokoa dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak onura publikokotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Lege horren babesean, Bilboko «Ekologistak Martxan Bizkaia» elkarteak aitorten hori eman dakiola eskatu du, bere ustez onura publikoko erakundea dela aitortzea merezi duelako egiten duen lanagatik.

«Ekologistak Martxan Bizkaia» elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatu zen 2000ko urriaren 27an (erregistro zenbakia: AS/B/08831/2000).

Elkarteak Bizkaiko Lurralde Historikoan betetzen ditu nagusiki bere egitekoak.

Eratu zenetik, «Ekologistak Martxan Bizkaia» elkarteak bere helburuak lortzeko behar diren jarduera guztiak egiten ditu; helburu horiek elkartearen estatutuen 2. artikuluan daude jasota:

«– Ingurumen arloko auzien eztabaidetan, aldaketa-proposamenetan eta konponketetan gizarteak duen parte-hartzea areagotzea.

– Arazo eta alternatiba ekologikoen gaineko eztabaida sustatzea.

– Euskal gizarteari jakinaraztea mugimendu ekologistaren taldeek eta pertsonak pairatzen dituzten erasoak eta ematen dituzten banakako erantzunak, batzuetan, dibertsifikatuak izaten direnak.»

Bete dira honako arau hauetan ezarritako eskakizunak: Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan, eta Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuan.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3.2.f) artikuluan ezarritakoaren arabera, dagokion espedientea instruitu da eta elkarteak onura publikokoa dela aitortzen da, Gobernu Kontseiluak hartutako Dekretuaren bidez.

Ondorioz, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposatuta, emandako dokumentazioa ikusita, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko urtarrilaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bilboko «Ekologistak Martxan Bizkaia» elkarteak, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean AS/B/08831/2000 zenbakiarekin inskribatuta dagoena,

2019ko urtarrilaren 14a, astelehena

onura publikokoa dela aitortzea, bere jardueraren bidez interes orokorraren alde egiten duela uste baita.

Horrekin batera, aitorten honi dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 43. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.